

Euskaltzaindiaren laurogeita hamargarren urteurrenaz

Euskaltzainok, Espainiako Gobernuko ordezkariok, Eusko Jaurlaritzako, Nafar Gobernuko, Frantziako Euskal Erakunde Publikoaren, Diputazioetako, udalerrri eta kultur eta gizarte erakunde eta elkarteetako ordezkariok, eta nola ez, hona etorrita, zuen presentziarekin ohoratzen gaituzuen gainerako jaun andreok; guztioi ongi etorri eta eskerrik asko guztioi.

A comienzos del siglo pasado, en un largo parto que duró del año 1918 a 1919, vino al mundo Euskaltzaindia, la actual Academia de la Lengua Vasca. Su nacimiento fue asistido y patrocinado por las Diputaciones forales de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra, que, como corresponde a los buenos padrinos, se han esforzado siempre por ayudarla en su camino, no exento, en tiempos de la posguerra, de notables obstáculos, tanto legales como económicos.

Los actos conmemorativos de este 90 aniversario tuvieron su comienzo el 6 de octubre del pasado año en Iruñea-Pamplona, en el XVI Congreso de Euskaltzaindia, sobre las Lenguas pirenaicas, con una serie de ponencias y comunicaciones realizadas en el Palacio de Congresos del Baluarte de dicha capital. Contaron con la presencia de destacados oradores, así como con la presencia del Consejero de Educación del Gobierno de Navarra.

Ondoren, aurtengo apirilaren 24an antzeko kultur ekitaldiak egin izan dira Arabako Diputazioaren Jauregian, bertako Diputazioaren agintari gorenak partaide eta hizlari izanez. Gauza bera egin zen Iparraldean ekainaren 26an Hazparnen, bertako udalaren partaidetasunaz.

Euskaltzaindiaren egoitzan, Espainiako *Real Academia Española*-ren, Galiziako *Real Academia da Lingua Galega*-ren, *Institut d'Estudis Calalans*-ko *Secció Filologica*-ren presidente eta idazkariekin, jendaurreko beste ekitaldi bat egin zen uztailaren 17an, Akademia bakoitzak azken urteotan egindako lanak azaltzeko.

Azkenean, lau akademiek adierazpen bat aurkeztu zuten, Espainiako hizkuntza ofizialen alde.

Hoy, con el acto que iniciamos aquí, en Donostia-San Sebastián, deseamos dar fin a las celebraciones de este nonagésimo aniversario, de acuerdo al programa establecido.

Ez litzateke bidezkoa izango baina, ia mende osoa iraun duen ibilaldi honetan bide-lagun izan ditugun pertsonetako batzuk, laburki bederen, ez gogoratzea: alde batetik, R.M. de Azkue, Arturo Campión, Julio de Urkijo, Luis Elizalde, Sebero Altube, Nikolas Ormaetxea, Manuel Lekuona, Gabriel Aresti, Federiko Krutwig, Luis Villasante, Koldo Mitxelena, Juan San Martin, Bitoriano Gandiaga, Jose Mari Satrustegi, Andolin Eguzkitza edo Henrike Knörr, euskaltzain batzuen izenak ematearren.

Ya he mencionado el destacado papel que han tenido en la vida de nuestra academia las distintas diputaciones forales, pero permítanme recordar con especial agradecimiento al ya fallecido diputado general de Bizkaia, Sr. Jose Maria Makua, que tanto empeño puso en dotar a nuestra institución de su actual sede en Bizkaia.

Eta bukatzeko, hemen ere, zeruetako erresuman bezala, lehenak azkenak. Bihoazkie gure txaloak Euskal Herriko jende guztiei, gure hizkuntzari erakutsiriko maitasun eta atxikimenduari esker, euskara, euskal kultura eta Euskaltzaindia bizirik irautea lortu dutelako. Anitz esker guztioi. Gracias a todos. Moltissimes gràcies. Merci beaucoup, monsieurs-dames. Thank you.

Donostian, 2009ko urriaren 9an

Xabier Kintana, Euskaltzaindiaren idazkaria